


ongi etorri!



sanjuanak badatoz



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri, Koldo Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri
eta Koldo Mitxelena.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa
eta Koldo Mitxelena.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

- Aita, handia egiten naizenean amonarekin ezkonduko naiz.
- Baina, semetxo, nola ezkonduko zara, ba, nire amarekin?
- Eta zu ezkondu zinen, ba, nirearekin...

Aner Gomez

- Noiz jaio zinen zu?
- Ez naiz oso ondo gogoratzen, baina larunbata edo igandea zela uste dut.

- Eta nola dakizu hori?
- Egun hartan ez nintzelako eskolara joan.

Oier Cid

Irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarrizketa:

- Zenbat hezur dauzka zure gorputzak?
- 208, jauna.
- Burugogorra! Ez al nizun esan atzo 207 hezur bakarrik dauzkala giza gorputzak?
- Baina gaur oliva hezur bat irentsi dut ordea...

Eneko Iglesias

- Gizon bat, begiak minberaturik zeuzkala eta, sendagilearengana joan zen. Sendagileak esan zion:
- Ez duzu betaurreko beharrik. Azenario asko jan behar duzu. Azenarioa ikusmena hobetzeko erremediorik onena da.
 - Eta zuk, nola dakizu hori? -galdetu zion gizonak sendagileari-.

- Oso erraz. Zuk ikusi al duzu inoiz betaurrekodun untxirik?

June Araujo

- Ero batek beste bati galdetzen dio:
- Zer liburu irakurtzen ari zara?
 - Eroetxeko liburutegiko liburu bat.
 - Eta ondo al dago liburu hori?
 - Nola egongo da, ba, ondo?
- Ondo egon izan balitz, ez zuten hona ekarriko.

Unai Izquierdo



Aldatze ikastetxeko 3., 4., 5. eta 6. Mailetako ikasleak Zuhatzara joan ziren maiatzaren 30ean. Nahiz eta euria eta hotza egin, primeran pasatu zuten uretako kirolak egiten. Ikastetxeko txikiak, berriz, Olentzeroren Etxea bisitatu zuten maiatzaren 31n.



Juan Antonio Mogel ikastolak Ainara Azpiazu "AXPI" liburu-ilustratzailearen bisita jaso zuen maiatzean Iturburun. Nolako erraztasunez marrazten duen ikustea sekulako esperientzia izan da. Hori gutxi balitz, Noraren ipuina ere kontatu zigun eta, bide batez, horma-irudi handi batzuetan ilustratzen joan zen. Horrela, poliki-poliki, pertsonaiaren abenturak eta gertakizunak ikusi genituen. 3. B-ko ikasleek aho zabalik jarraitu zuten Ainararen lana.

Urki-zuko ikastetxeko 2. zikloko ikasleak Arritxulon izan ziren maiatzaren 14an eta 15ean. Eta primeran pasatu zuten! Ekainaren 3an eta 4an, 1. go ziklokoak Piraten Etxera joan ziren; eta 5ean, Haur Hezkuntzako ikasleak Donostiako Aquariumean izan ziren. Ekainaren 11n, berriz, "Erreka Mari" emanaldia izan zuten maila bereko ikasleek.




DENBORAPASAK

TXIMUAK




Zein tximuk jango du banana?

ZALDITXOA



Itxasoko zalditxoaren zenbat silueta ikusten dituzu?

GURUTZATUAK




Bete, marrazkiei begiratu.

NARRASTI ZOPA. Aurki itzazu sei narrasti.

K	J	F	E	P	A	Z	
R	I	N	A	M	I	A	K
O	K	M	L	O	H	F	D
K	R	A	S	U	G	E	L
O	L	T	A	P	D	R	I
D	B	F	K	E	Z	U	K
I	D	O	R	T	O	K	A
L	A	T	S	G	K	A	M
O	D	I	L	A	K	I	A
A	M	D	A	N	B	E	L
T	E	S	T	A	E	B	E
A	N	D	U	I	S	O	
A	G	E	G	O	R	I	
L	U	I	L	I	D		

HERRAMIENTA SOPA



Marraztutako herramientak aurkitu:
 Mailua, Alikateak, Bihurkina, Zerra,
 Zulagailua, Zizela, Birabarkia.

Agur ikasturteari, ongi etorri

Amaitu da ikasturtea! Gora oporrak! Urte osoan hurrenbeste lan egin ostean, benetan merezita dituzue oporrak. Eibartarrok zorte handia dugu; izan ere, ikasturtea amaitu eta berehala, San Juane-kin ematen diogu hasiera udari eta oporrei.

San Juanetan ondo baino hobeto pasatzeko aukera izaten dugu beti: suzko erroberak, barrakak, San Juan sua, danborrada... Gainera, gurasoek kalean berandura arte egoten lagatzen digute, ezta?

Ondoren, aurtengo San Juanetako egitaraua duzu, ondo irakurri, lagunekin edo gurasoekin adostu eta gozatzeko!

Ekainak 20, osteguna

- Egunean zehar, barraken prezioa 0,70 eurokoa izango da.

Ekainak 21, barixakua

- 17:00etatik 20:00etara, Untzaga plazan, umeendako puzgarriak, Astixaren eskutik.

- 19:00etan, Untzaga Plazan, umeendako antzerkia: "Zoom, zoom" antzezlan, Markeliñe konpainiaren eskutik.

- 20:00etan, Coliseo antzokian, "Ballet Eibarres" taldearen emanaldia. Sarrera: 3 €

Ekainak 22, zapatua

- 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara, Untzaga Plazan, simulazio jokoen taillerak (modelismoa, magia, eszenografia eta mahai jokoak), Oviédoko Odisea elkartearen eskutik.

- 18:00etatik aurrera, Untzaga Plazan, "Los extraños juegos del señor Tonet" jolas parkea, Catalunyako Tombs Creatius konpainiaren eskutik.

Ekainak 23, domeka

- 13:00ean, Estaziño kalean, ongietorria Lizarrako Dultzaineroei, eta kalejira Untzagaraino Udalbatzak, Asier Cuevas-ek, Badiharduguk, kuadrillek eta ...eta kitto!-k lagunduta.



ri sanjuaneri!

- 13:30etan, Udaletxetik, pregoia eta jaiei hasiera emateko txupinazoa.
- 18:00etan, Urkizutik, Lizarrako erraldoi eta buruhandien kalejira, Lizarrako Dultzaineroen laguntzarekin.
- 19:00etan, Untzaga plazan, kale animazioa "Txantxariak" ikuskizunarekin.
- 23:00etan, Untzagan, San Juan Sua, Eibarko Dantza Garikide taldearen emanaldiarekin. ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik.
- 24:00etan, Untzagan, San Juan Kantua eta, jarraian, Danborradaren Alardea.

Ekainak 24, astelehena

- 19:00etan, Urkizun, Umeen Danborradaren irteera, Oria eta Ustekabe fanfarreekin.
- 20:30etan, Untzagan, umeen pregoia, Umeen Danborradako Danbor Nagusiak irakurrita, eta Alardea.
- 23:00etan, Soka Dantza Untzaga plazan, Usartza Txistulari

Banda eta Kezka Dantza Taldearekin.

- 23:30etan, suzko erroberak, Pirotecnia Zaragozanaren eskutik.

Ekainak 25, martitzena

- 19:00etan, Untzaga plazan, "Txangoa" umeendako antzerkia, Patxin eta Potxin taldearen eskutik.
- 19:30ean, Untzagan, Euskal Jaialdia, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik.
- 23:00etan, suzko erroberak, Pirotecnia Astondoaren eskutik.

Ekainak 28, barixakua

- 17:00etan, Karmen kaleko parkean, umeendako txokolatjana.
- 17:30etan, Karmen kaleko parkean, umeendako jokuak (lapikoak apurtzen, lasterketa zakuekin,...)
- 19:00etan, Karmen kaleko parkean, Gorriti eta bere abereak. Antolatzailea: Beheko Tokia.



Nagusixen eta umien artian desbardinttasun haundixak izaten dirala pentsatzen dogu. Baiña zer gertauko zan galdera bardiña egitten badetsagu nagusixari eta umiari? Horrenbesteko aldia egongo ei da?

Zelan ospatzen dozuz/zenittuan sanjuanak?

DANEL MURILLO, 7 URTE

Igaz tanborradan urten nintzan, baiña aurten ez; ondo pasau neban, baiña aurten ez nekan gogorik. Asko gustatzen jataz sanjuanak, ondo pasatzen dot. Barraketan pilla bat ibiltzen naiz eta su artifizialak be ikusten dittut. Gehixen gustatzen jatana barrakak eta izozkixak jatia da.

PAQUI GARCIA, 66 URTE

Ni oin dala 43 urte etorri nintzan Eibarrera bizi izatera. Atenziñua deittu zestan tanborradiak, asko gustau jatan eta, gaur egunian be, gehixen gustatzen jatana da tanborradia. Kalian egoten dan girua be asko gustatzen jata, oso ederra da.

LEIRE ARAUJO, 8 URTE

Barraketan ibiltzen naiz eta su artifizialak ikustera juaten gara. Dantza eta musikia baldin badago, hori ikustera be juaten naiz, eta san juan sua be bai. Oso ondo pasatzen dot jaixetan, baiña gehixen gehixen gustatzen jatana barraketan ibiltzia da.

BELEN DIZ, 40 URTE

Umetan gehixen gustatzen jatana txarangak ziran, jai girua emoten zebeñ-eta. Txosnetan be ibiltzen giñan, konziertuak entzun, barraketan ibilli... Txarangek sortzen daben girua da gaur egun be gehixen gustatzen jatana.





ETXERAKO LANAK: BAI EDO EZ?

Eztabaidak pil-pilean jarraitzen du; aldeko eta kontrako argudioak jaso ditugu ekaineko alean zuei eskaintzeko.

Etixerako lanen kontrako kanpaina hasi zuten Frantziako gurasoek, hamabost eguneko greba batekin, eta Espainiako Estatuko Gurasoen Konfederazioak (CEAPA) bat egin zuen ekimenarekin, azken urteetan etxerako lanen kopurua handitu dela salatuz.

Kontrako iritziak

Hauek dira CEAPAk ematen dituen arrazoiak, etxerako lanen kontra egiteko:

- Hezkuntza-sistemaren porrota irudikatzen dute hein handi batean, ikasleak eskolan landu beharko lituzketen zereginekin ginkargatzen dituztelako.
- Gizarte-desberdintasunak sortzen dituzte: ikasleak familia eta inguruaren arabera egingo ditu hobeto edo gaizkiago. Guraso batzuk seme-alabei laguntzen saiatuko dira, beste batzuk akademitara bidaliko dituzte eta beste batzuk ez dute ez mailarik ezta dirurik izango ez bata ez besterako.
- Tentsioak sortzen dituzte guraso eta seme-alaben artean. Askotan, jolastu gabe geratzen dira ikasleak etxeko lanak egiteko, eta horrek errefusa sortzen du. Ikasleek jakin egin behar dute zeintzuk diren euren eginbeharrak, baina jolasteko denbora ere izan behar dute.
- Arazoak sortzen dizkie gurasoei, berandu ateratzen direlako lanetik eta ez daukatelako denborarik.
- Ikasleek denbora behar dute bestelako jardueretako (kirola, kultura, aisia), horiek ere garrantzitsuak direlako garapen pertsonalerako.

Aldeko iritziak

Etixerako lanen aldeko iritziak ere agertu dira. Zera diote hauek: norberaren ahalegina eta arduraren baloreak ikasten direla etxeko lanekin. Horren harira, etxerako lanek eskola emaitzetan eragina dutela erakusten duten ikerketa baten emaitzak argitaratu dituzte Britainia Handian, 15 urtez 3.000 ikasle aztertu ondoren. Britainia Handian etxeko-lanei buruzko gomendioak ematen ditu gobernuak. Hala, astean ordu batez aritu beharko lirateke etxeko-lanak egiten 5 eta 7 urte bitarteko ikasleak; bat eta erdi 7 eta 11 urte bitartekoak; azkenik, bi ordu eta bi ordu eta erdi bitartean aritu beharko lirateke 14 eta 16 urte bitartekoak. Eztabaida interesgarria benetan.

Zer deritzo zu zuk?

etxeko ARTISTA




Eguzkia

Eguzkia ikusteko aukera gutxi izan dugunez, geure eguzkia egingo dugu!
Oso erraza da, margotu, moztu eta itsatsi besterik ez duzu egin behar.

ZER BEHAR DUGU?

- ✂ Paperezko platerra.
- ✂ Tenpera horia.
- ✂ Errotulagailu permanente beltza
- ✂ Kartulina, horia (argia eta iluna ahal bada) eta laranja.
- ✂ Artaziak
- ✂ Kola



Nola egiten da?

Lehenengo platerra horiz margotu eta sikatzen laga.
Ondoren, ipini eskuak kartulina gainean eta margotu. Moztu zure eskuaren forma.
12 esku beharko dituzu, gutxi gorabehera.
Margotu dugun paperezko platerrean, aurpegitxo alaia marraztu errotulagailu beltzarekin.
Platerrari buelta eman eta moztu dituzun eskuak itsasten joan, eguzki- izpiak balira bezala. Koloreak tartekatatu.
Platerrari buelta eman eta hor duzu zure eguzkia!





etxeko SUKALDARIA

MARRUBI GOZOA

Sukaldean ibiltzeak badu bere sarma, ezta? Gauza gozoak egiteko aukera asko dugu. Eskatu laguntza etxean nagusieri eta ekin gaurko errezeta egitera...

OSAGIAK

- ✓ Ura
- ✓ Marrubiak
- ✓ Marrubi zukua (marrubiak batidoraz eta iragazkitik pasatuz lortuko duzu)
- ✓ Gelatina
- ✓ Esnegaina

1.- Heldu baten laguntzaz, ipini ura berotzen eta, irekiten hasten denean, 6 goilarakada ur hartu eta pitxar batera bota.

Gelatina bertan sartu eta irabiatu kontu handiz, gelatina erabat desegin arte.

Marrubi zukua bota pitxarrera eta ondo nahastu.

2.- Marrubiei buztana kendu eta, tamainaren arabera, bitan edo lau zatitan moztu. Marrubi politenak edo itxura onena dutenak apaintzeko laga alde batean.

3.- Marrubi zatiak 6 edalontzitan banatu. Edalontziak ia erabat beteta egon behar dira; baina, aldi berean, lekua egon behar da marrubien artean.

5.- Gelatinarekin nahastu dugun marrubi zukua bota marrubiz bete ditugun edalontzietara.

6.- Hozkailuan sartu eta lau bat orduz hozten laga.

7.- Gelatina gogortzen denean, esnegaina eta marrubiekin apaindu.



INTERNETEN...

ARIES

Ez abestu kalean zure ahots horrekin; amona batek baldekada ur botako dizu. Argi ibili!!!!

TAURUS

Aprobetxa itzazu asteburuak eta eguraldi ona kalean jolasean aritzeko. Oporretara joan eta lagun asko egin!!

GEMINIS

Zoara joaten bazara, animalia guztiak pozik jarriko dira. Baina, kontuz, pertsona asko animalia hutsak dira eta.

CANCER

Non dago kamiseta gorria?? Gela txukun uzten baduzu, ez duzu denbora galduko gauzak bilatzen.

LEO

Kurtsoko azken txanpan gaude. Asko ikasi, eta ondo amaituko duzu kurtso hau.

VIRGO

Askok ikasten duzun arren, notak ez dira batere onak. Baina zuri bost! Zure azukre koxkorra zeure esanetara duzu adurra dariola! Ayyyyyyyyyyyyyy, zein poza!!!!!! Zorionekoa zu!

LIBRA

Zure kolorea gorria izango da eta 7 zerbakiak zortea ekarriko dizu. San Juanetan lagun berriak egingo dituzu.

SCORPIUS

Kirola egitea oso lagungarria da; baina neurrian, beti ere. Lasai hartu, ez zaitez gehiegi nekatu.

SAGITARIUS

Kasu gehiago egin gurasoei... bestela, sanjuanetan barraketan ibiltzeko aukera galduko duzu.

CAPRICORNIUS

Itsasoko ura maite duzu, baina eguraldi honekin ez dago uretara sartzerik. Zoaz igerilekura, han ederki ibiliko zara eta!

ACUARIUS

Ikastolako lagunak asko maite zaituzte, zuk batzuetan kontrakoa pentsatu arren. Lagun onak dituzu benetan.

PISCIS

Segi lurrari begira; seguruenik txanpon bat edo beste topatuko dituzu gaurkoan. Gorde San Juanetan gastatu ahal izateko.




www.childtopia.com

Orrialde honetan hainbat gauza dibertigarri aurkituko dituzue: jokoak, eskulanak, ahozko eta idatzizko ulermena, detektibea, ipuinak, marrazten ikasi, fitxa hezigarriak, zenbakiak idazten ikasi, letrak idazten ikasi... Ikus dezakezuen moduan, aukera asko ematen du orrialde honek ondo pasatzeko. Gutxi balitz, hainbat hizkuntzatan egiteko aukera ematen du, baina ez ahaztu euskara! Egin klik eta ondo pasa!

www.aisia.net


Orrialde honetan jolasean jarduteko ideia praktiko ugari daude, azalpen eta bideoen laguntzarekin. Eskulanak egiteko aukera ere ematen digu, oso ondo azaldu-tarik eta jarraitu beharreko pausoak emanez. Denda bat ere badauka eta aukera izugarria CD, DVD, liburuak eta liburuxkak erosteko. Urtean zehar lehiaketak ere antolatzen ditu, igarkizunak eta piropoak... Egin klik eta on egin!





INGELESEN HILERRIA

Inork ez du lorarik eramaten Donostiako Urgull mendiko Ingelesen Hilerrira. Bertan lurperaturik dau-den britaniar soldaduak aspaldi hil ziren, karlistaldian. Baina, 1956ko udako arratsalde batean, neskatxa batek negar egin zuen hilobi baten aurrean. Une horretan, familia baten inguruko kondaira eta berrogeita hamar urte lehenago gertatutako krimen baten misterioa azalera ateratzen hasi ziren.



POTTOKO HIPERMERKATUAN

Baserrian bizi da Pottoko, mendi artean. Auzoan, ordea, Hipermerkatu Elefante ireki dute, eta hara doa gurasoekin. Dena da berria, handia, txundigarria... Zer egingo du Pottokok hainbeste marka, produktu eta gauzen artean? Bada, besteak beste, abentura barregarriak bizi, eta baita beldurgarriak ere. Arranoa!



KATIXA ETA KROKO

Katixari letrarik gabeko liburua erregalatu zioten. Animalien argazkiak zeuzkan barruan. Hantxe zeunden txahala, astoa, ardia, katuak, krokodiloa... Batzuetan animalia hauek liburutik atera egiten ziren, eta gero bertara itzuli. Behin batean krokodiloak ere ihes egin zuen liburutik eta izugarrizko bihurrikeriak egiten hasi zen: zapatila-muturrak zulatu, liburuak nahastu, errotuladorez zirriborroak egin, pijama lapurtu... Zer egin ote zuten Katixa eta bere anaia Jurgik krokodiloa harrapatzeko? Eta zer egin ote zioten harrapatu eta gero? Auskalo!



IPUIN-KONTALARIA

Ipuin-kontalariak, bat-batean, urrezko giltza atera eta esan du: "Hitzaren giltza, hitzaren giltza, ahoa ireki eta elkarrekin mintza". Eta urrezko liburua zabaldu du; eta guk, orduan, ireki ditugu begiak leihoak bezala.



KOSK EGITEN DU

Hogeita hamabi hortz dauzkat. Hogeita hamabi. Denak zuri-zuriak eta zorrotz- zorrotzak. Txikia nintzenean ez: jaiio nintzenean ez neukan batere hortzik. Orduan amak ematen zidan titia eta amaren esnea edaten nuen. Besterik ez nuen egiten egun osoan: titia eta lo. Lo eta titia...



JON ZIKINAREN ANAIA

Jon haur zikin bat zen. Liburuak lurrera botatzen zituen. Zapatak lokatzez zikindu eta mahai gainean uzten zituen. Behatzak platerrean sartzen zituen. Horregatik, Jon Zikin deitzen zioten. Egun batean, Maitagarria Jonen gelara sartu eta...

HERENSUGE

Euskal Herriko txoko askotan da ezaguna pertsonaia mitologiko hau. Suge itxura duen jeinu gaizto eta beldurgarria dugu hau. Elezahar batzuetan, zazpi buru ditu, baina gehienetan bakarra duela kontatzen da. Haitzuloetan bizi da, eta soilik gosea asetzeko ateratzen omen da bizilekutik.

Aspaldi, erregea herri eder batean bizi zen, eta inguruko haitzulo batean bizi zen zazpi buruko herensuge izugarri bat. Jeinu gaiztoak herriko jendea irensten zuen, eta, halabeharrez, herensugearekin tratu bat egin zuten. Urtean behin neska gazte bat eskaintzen bazioten herensugeari, bakean utziko zituen hark. Egin zuten herri-tarrek zozketa neska gazteen artean, eta erregearen alabari suertatu zitzaion herensugearen jaki izatea.

Erregeak, orduan, erreinu guztian zera zabaldu zuen, herensugea hiltzen zuena bere alabarekin ezkonduko zela, eta erregetzaren oinordeko izendatuko zuela. Eskaintza egiteko eguna iritsi zenean, lotu zuten neskatxa haitzulo ondoko zuhaitz batean, eta zain jarri ziren. Jende asko joan zen bertara, baina inor ez zen ausartzen erronkari heltzen. Halako batean, agertu zen bertara artzain bat bere zakurrarekin, eta zer gertatzen zen galdetu zion neskatxari. Erregearen alabak dena azaldu zion artzainari, eta orduantxe agertu zen herensugea orroa izugarri bat eginez. Artzainak, asko pentsatu gabe, zakurrari agindua bota zion: -Zesar, lot hakio!. Eta zakurrak heldu zion banan-banan herensugearen buruei, eta menderatu egin zuen piztia. Orduan, artzainak animalia-aren zazpi mihiak moztu zituen, eta baita neskatxaren zazpi azpikogonen zazpi zatitxo ere. Jaso zuten dama hura eta gaztelura eramane zuten. Jendea harriturik joan zen nor bere etxera, baina gazte lotsagabe batek herensugearen zazpi buruak jaso zituen. Hurrengo egunean, gazte hark zazpi buruak aurkeztu zizkion erregeari, eta erregeak bere oinordeko izango zela agindu zion gazteari.

Ezkontza baino lehen, festa eder bat egin zuten, eta ezkongai gazteak herensugearen zazpi buruak eramane zituen. Etorri zen artzaina orduan, eta esan zien: -Buru horiek zer-bait behar dute. Eta artzainak zazpi mihiak, zazpi azpikogona zatitan bilduta atera zituen. Erregea gaztearen iruzurras ohartu, eta bere alabarekin ezkontzeko esan zion artzainari. Geroztik, zoriontsu bizi omen dira artzaina eta neskatxa.



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...

NASRUDIN ASTOZAINA


Behin batean, bazen errege aberats-aberatsa, bi seme zituen. Errege ona omen zen eta haren erresumako biztanleak zoriontsu bizi ziren. Baina hil egin zen eta erregetza bi semeetarik bati laga zion. Zeini? Holan utzi zuen idatzita testamentuan: "Nire semeek zaldi-lasterketa bat egingo dute gazteluaren bueltan; azkena heltzen den zaldiaren jabeak irabaziko du erreinua". Harrigarria! Herria aho zabalik zegoen, eta lasterketa zeinek irabaziko zuen jakiteko irrikitan ere bai.

Bi semeak laster batean igo ziren bakoitza bere zaldira, baina berehala konturatu ziren ez zitzaiela pausu bakarra egiterik komeni... Beraz, berriro zalditik jaitsi eta bertan geratu ziren, zain, ea bestea aspertuta abiatzen zen-edo. Egun bat joan zen, eta beste bat... eta hilabetea eta herria aspertzen hasi zen... eta, inork ez zuenez agintzen, gero eta nahaspila handiagoa zegoen, eta auzi hura erabakitzeke gero eta esperantza gutxiago. "Honek ez dauka konponbiderik", pentsatzen zuten gaztelu-zaindarien, eta okinek, eta arotzek...

Seme bati eta besteari proposatu zioten sikiera bat abiatzeko, eta helmugaraino iristeko, horrela besteak erregetza hartuko zuela. Baina batek ere ez zuen aukera hura galdu nahi. Eta urte osoa pasatu zen... Erreinua hondamendian zegoen. Inguruko erregeek erresuma hura zatitxoetan banatzeko asmoa zuten. Eta hara non agertu zen astozain bat, Nasrudin izenekoa, berak bazekiela nola erabaki kontu hura! Eta nola? galdetu zioten denek. Eta nola? galdetu zioten bi semeek.

"Oso erraza da, igo bakoitza bestearen zaldira eta lehenengo iristen denarentzat izango da erreinua, bere zaldia azkena helduko delako".

Esaldia amaitzen ere ez zioten laga. Bi semeak bestearen zaldian igo eta ziztu bizian abiatu ziren. Bat iritsi zen lehenengo eta, bere zaldia azkena heldu zenez, bera izendatu zuten errege... Zelako tontakerria! Erregea, inor izatekotan, Nasrudin astozainak izan beharko zuen. Ez duzue uste?



Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...



zu margolari!